



MUSIKA

Eztitasun garaia



ENRIQUE MORENO ESQUIBEL

Txaikovskyren *Intxaur-hauskailua*.

Royal Russian Ballet.

Zuzendaria: Anatoliy Kazatskiy.

Bakarlariak: Karina Telvar eta Arsen Marusenko.

Lekua: Euskalduna Jauregia.

Data: abenduaren 26a.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Bizi ditugun garai arraro eta nahasietan, eta are gehiago Eguberrietan, beti da atsegina klasikoei eustea, gozotasunez eta amets xarmagarritz beterikoak. Ballet klasikoko gaualdi batez gozatzea une goxoa da beti, errealtate-tik deskonektatu eta fantasiako mundu ideal batean murgiltzeko aukera ematen duena. Baina, gainera, Txaikovskyren titulurik zoragarrienetako bat bada, plaza mila aldiz biderkatzen da.

Intxaur-hauskailua Gabonetako klasiko bat da, baina nahiz eta mila aldiz ikusi, lan honetan beti aurkitzen ditugu pentsatzeko xehetasunak eta ideiak. Txaikovskyk konposatutako hirugarren balleta da, *Beltxargen aintzira* eta *Loti ederra* lanen ondoren, eta Marius Petipak eta Lev Ivanovek sortu zuten koreografia. 1892an estreinatuzen, baina bitxia da bere ospe handia 1960tik aurrera hasi zela. Estreinatu

eta berrogeita hamar bat urtera, Walt Disneyk *Intxaur-hauskailuaren* zati musikal bat erabili zuen 1940ko *Fantasia* filmean. Jendeari filma gustatu zitzaion eta balletarekiko interesa pizten hasi zen. Interesa handitu egin zen George Balanchinerekin *Intxaur-hauskailuaren* muntaketa 1950. urtearen amaieran telebistan eman zutenean. Balleta leku askotan antzeztu da ordutik, eta agian mendebaldeko herrialdeetan ballet guztien artean ezagunena bihurtu da, batez ere Gabonetan.

Oraingo honetan, Royal Russian Balletak eskainitako muntaketaz gozatu ahal izan dugu. 2008an Anatoliy Kazatskiyk sortutako taldea da, eta Errusiako ballet klasikoaren eskolako tradizio guztia biltzen du. Bestalde, joera koreografiko berriak sartu nahi dituen taldea da, eta, gainera, bere herrialdeko dantza-talentu berriak sustatzen ditu.

Errusiako balletaren tradizioz onena ikusi eta gozatu ahal izan genuen. Karina Telvar (Clararen paperean) eta Arsen Marusenko (Printzearenean) dantzari protagonistek *pas à deux* zoragarriak egin zituzten, koordinazioz eta sentsibilitatez beteak. Mykola Steshenkoren dantzaren dotorezia ere oso azpimarragarria izan zen, *Intxaur-hauskailuaren* rolean, eta Anatoliy Kazatskiy zuzendariaren birtuosismoak, Drosselmeierren paperean, txundituta utzi gintuen.

Beharbada, gehien desitxuratu zirenak taldeko saioak izan ziren, koordinazioz eta sakoneko lanik gabekoak. Bestalde, dekoratua eta jantziak ez zeuden obraren eta bakarlariren kalitatearen mailan. Baina hori, jakina denez, diru kontua da. Nolanahi ere, gozatzeko moduko obra eta muntaketa eskaini zituzten, dudarik gabe. ●